

Ze barri?

1999
AZAROA
ABENDUA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

35. zkia.

Urlatik Landetara

Elkarrizketa:

Edorta Zabala pilotaria

Erreportaia:

Udazken kulturala

Eskoriatzarrok munduan:

Bea eta Imanol Vietnamen zehar

Gabonetako ekintzen egitaraua

**Olentzeroren etorrera,
milurteko amaieran**

BAZAR LEINTZ

Opariak, etxeko tresnak
eta jostailuak

Olazar, 8 • Tf. 610 905576

RELE

Faustino Legazpia

Tel. 943 71 40 72


Gaztañadui, 21

Karmanta

Tf. 943 715387 • ESKORIATZA

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora



kutxa

*gizarte-ekintza
obra social*

BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaia

KRISTALDEGIA

Herriko plaza ☐ 943 79 81 78
ARETXABALETA

AZKOAGA

ESTANKOA

Zure zerbitzura



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 943 71 51 20

TOKI EDER Taberna

Oilasko erreak

943 715438

Benta Motz

Taberna

Tel. 943 71 48 22

**Cuenta Joven
de Caja Laboral**
El servicio
más completo.

**Euskadiko Kutxaren
Kontu Gaztea.**
Zerbitzuetan
osatuena.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



LENIZ
ESKORIATZA

Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 943 715061



SUZUKI

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

REPARACIONES LENIZ, C.B.

TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**

GOLO

gazte moda

Tel.. 943- 71 45 61

ANGEL Aseguroak

Autoak, Etxeak, Bizitza, Istripuak,...

Arana, 19 Behea • Tf. 943 715203 • ESKORIATZA



Aldi Bi

943 71 20 02

E. MAZMELA

HORTZ
KLINIKA

Tel. 943 71 47 36

ZURE PUBLIZITATEA HEMEN

Kontratuak berritzen ari gara.

943 715453. Ze Barri?

JAIXAK

Dizienbria, dudaik barik, jaiegunen hilebetia da. Denpora gehixau pasetan dou jaixetan lanien baino. Urtia egokixa bada, aurtengua dan moruen, Kostituzinuen ero Kontzezinoko puentiaz hasikutsou ,bost egun, eta Gabonakin akabaukou ,beste zortzi ero hamar egun, gutxienez. Baina honen jaixon kontuonepe bere hausnarketa kritikua mereziru dauela uste dot nik, faltsukeri eta mentalidade hipokrita samarrak sometan dielako.

Gainera datorkigun makropuente hontan teorixan jai bi zelebroukoittugu, Kostituzinua, alde batetik, eta Ama Birjinien Kontzezinua, bestetik. Eta nire preguntia da, errezoi diferentiatatik ero igoalakatik ,baina dana dala Kostituzinuen kontra inguru hontan agerketan dan jente guztiak zeatik zelebrou bihedauen hori egunoi. Eta horren aurrien, Kostituzinuai kontra eitteatik, egongo ete litzakez horreik danok kostituzino eguna esistiruko ezpalitz moruen tratau eta lanera fateko gertu, beste erozein lanegun balitz moruen?. Hori baino erresistentzia, desprezio, eta konportamentu militante eta,zeinek daki efektibuaurik.....

Ero Elixiatik, eliz gizonakatik, elixtarren fede ridikuluahatik Ezpiritu Santuak einddako Ama Birjinien kontzezinuen kontuen, razionalidadien gizaldixa ei dan XXI. Gizaldiko sarrera hontan esaten dienak esanda, ero pentsetan dienak esanda, gazen moruko Estau laiko baten zeatik zelebrou Ama Birjinien kontzezinu eguna? Zetarako hori makropuentioi benetan koherentiak bagare? Eskietan fateko,igoel? Izen be, oin eskietan eztaixenak oinez ibiltten jakingo

ezpalau moruen da, eta sekula fan eztana atrasau galanta!

Baina polittena gerotxuau dator. Gabonetan. Oin modia sartu da esateko Gabonetan tristuria sartzejakula , eta Gabonape eztiela lhen ziena Beti falta jakula bateonbat eta soziedade konsumistien erreflejua diela.Ze tristura sartzejaku ? Urte guztien pasetan doun nahigabe eta estresen nahaskilia akaso? Ero askotan aittajaun-amandriak hazi biher izeten dauien semia ero alabia agoantau biher izetia? Bateonbaten gomutia?

Eta horreatik eztie Gabonak lhenaukuak morukuak ?. Falta dan bateonbaten hutsa sometia normala pentsetaajat, baina tristiena barrez, haren faltia Gabonetan bakarrik somau biherra dala erexetjat. Ezuskuen gure aurrekuak Gabonetako ezpiritu bat transmitiru , Gabonak eztiela lhen ziena esateko guk faltan botaten doun hori?. Eta sarrittan faltan botaten doun aitta-ama, aittajaun-amandre, nebarreba horreik ez ete euien euren

momentuen besten batzuen hutsa igerri guri ha poza itxi hal izeteko? Zeatik eztou guk horixe beroi trasmitiruten? Fede kontutik entendiruten eztana baino fede kanpotik zentzuna hartu ezinik pasetan dan jai tradizional bat izetera pasauta ete daz Gabonak?. Holako kondizinuetan ez ta estrainetakua , ta gehixau telebisinuak etab.ak trasmitiruteuskuena ikusitta, Gabonak soziedade konsumistien erreflejo onena izetia. Gogorrena da gehixentxuenetan Gabonak konsumistatztat joteittuenak hamabost egun lhenau eskietan fan dienak izeten diela, gero Gabonetako egun haundixenen artien dazen telebisinoko telemaratoi solidariuetan parte hartzeko. Hori bai dala soziedade konsumista baten erreflejua.

Dana dala, ikusten ezpagare, erozein lekutan egonda be , ONDO PASAU PUENTIAU ETA GABONAK!

D.M.III.na.



ZE BARRI?

Argitaratzailea: AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano eta Lourdes Martinez.

Kolaboratzailea: Aitor Urrutia, Asier Errasti.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.000 ale Lege gordailua: SS - 200/99 ISSN: 1139-9856

“ZE BARRI?” aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin”



Eskoriatzako Udalak diruz
lagundutako aldizkaria
Euskara Batzordea



Leinz Gatzaga Udalak diruz
lagundutako aldizkaria



23 Eskoriatzar Behobia Donostia lasterketan

Joan den azaroaren 14ean ospatu zen, urtero bezala, Behobia - Donostia lasterketa herrikoa. Euskal Herriko lasterketa jendetsuena da. Lasterketarako hamabi mila lagun baino gehiago zeuden izena emanda. Egia esan, ez zen girorik izan korrika egiteko, eguraldia benetan txarra izan baitzen. Baina, halere korrikalarien erantzuna oso ona izan zen eta ia hamar mila lagun iritsi ziren helmugara.

Goizean zerura begiratu eta batek baino gehiagok zalantza izango zuen lasterketan partehartzeko.

Halere gehienek abiatzea erabaki zuten. Esan beharra dago korrikalariak, ibilbidearen 20 kilometroez gain hotza eta batez ere

euria jasan behar izan zituztela. Irabazlea, Juzdado madrildarra izan genuen, eta Diego Garcia azkoitiarrak oso lan ona burutu zuen bigarren postuan amaituz. Esan behar da, bi korrikalari hauek, ordu bat baino gutxiago behar izan zutela ibilbide osoa betetzeko. Korrikalarien artean eskoriatzar ugari izan genituen. Eguraldi txarraren eta ibilbidearen aurka aritu zirenen artean guk, hogeita hiru eskoriatzarren izenak lortu ditugu. Baten bat aipatu gabe geratuz gero alde aurretik barkamena eskatzen diogu. Hauek dira, beraz, Behobia - Donostian parte hartu zuten eskoriatzarren izen, denbora eta postuak.

JAntonio Uribetxeberria	1:20:45	858
Andoni Azkarate	1:24:58	1546
J. Inazio Luengo	1:27:16	1987
J. Javier Gutierrez	1:27:18	1990
Isidro Bueno	1:27:30	2033
David Urrutia	1:28:14	2183
Asier Sologaitza	1:28:26	2238
Ion Leturiaga	1:29:53	2577
Richar Altuna	1:30:02	2594
Mikel Diaz de Gereñu	1:31:01	2811
Aitor Kortazar	1:31:05	2815
Iñigo Eraña	1:41:08	5099
Xabi Gabilondo	1:42:50	5516
J. Luis Arroyabe	1:44:08	5863
Roberto Eraña	1:44:23	5928
Angel Kortazar	1:44:27	5955
Josetxo Atxaga	1:46:16	6418
Pello Karrillo	1:46:53	6558
Oier Larrañaga	1:53:49	7904
Igor Ezpeleta	1:53:50	7908
Iosu Biteri	1:56:07	8257
Lander Oyanguren	2:01:08	8857
L. Angel Ortega	2:01:14	8872

LABURREAN:

Debaguneren Egutegiak

Badator 2000. urtea eta urteroko ohiturari jarraituz DEBAGUNEK, Deba Goienero herrietako Euskara Taldeok osatzen dugun elkarteak, geure egutegia atera dugu. Aurtengo gaia, "lanbide zaharrak" da, eta herriz herri, lehen hain betikoak izan ziren lanbideak jasotzen ahalegindu gara: kamineroak, jostunak, otzaragintza, karreteroak, errementariak...

Egutegia lortu ahal izateko datozen egunotan ohiko puntuetan jarriko dugu salgai 300 pztaren truke.

Iradokizunentzat buzoia

Eskoriatzako udalak herritarren partaidetza bermatzeko asmoekin jarraituz, herritarrok udalera iristeko bide berri bat zabaltzea erabaki da. Horrela, eskoriatzarrok izaten ditugun edozein, kezka, arazo edo eta iradokizunen berri udalari emateko "Iradokizunen buzoia" ipintzea erabaki du kontzejuean.

Lokalak erabiltzen herriko taldeak

Musika eskola zaharrea herriko bi taldek lokalak eskuratu dituzte hilabete honetan. Alde batetik, EGAS (Eskoriatzako Gazte Asanbladak) entseietarako erabiltzen zen lokala harut du bilerak egiteko. Gazte Asanbladaren bilerak larunbatetan izaten dira, arratsaldeko 3etan.

Bestetik, INGURUGIRO sailak bere lan taldeko bilerak egiteko beste lokal bat hartu du. Bilera hauetara, ingurugiro gaietan interesa duen edonor joan daiteke. Hilean birritan egiten dira ingurugiroko bilerak, hilaren bigarren eta laugarren astelehenetan (arratsaldeko 6,30etan) hain zuzen ere.

IRRINTZI

Taberna

Tel. 943 71 46 83

carpinteria
leniz

AROSZTEGIA

Tfnoa. 943 71 49 36

ALDATZ Taberna

Tfnoa.: 943 714171

Musika ona entzun dezazun

GAZTAINA ERREEN FESTA IKASTOLAN

Azaroaren 26 ostiralean, Jose Arana Almen ikastolako haurrek gaztaina erre festa egin zuten. Bertan, danbolinan gaztainak ondo erre ondoren, gustora jan zituzten. Ohitura bihurtzen ari den festa honen egunean eguraldia eguzkitsua egin zuen eta hortaz, gaztainak jateaz gain beste jolas batzuk egiteko aukera ere izan zuten. Kanpotik ekarritako poney baten atzetik ibili ziren korrika.



Danbolinean erreta, aintzinako moduan, gaztaina goxo goxoak jan zituzten borobilean eserita

Baita ere egun honetarako ekarria zuten zaldi zuriaren gainean; batzuk urduri, besteak pozik eta bakar batzuk izututa. Gaztainen festa polit honek urteetan iraun dezan espero dugu.

Haurrak poneyaren inguruan ibili zirengaztainak jan ondoren. Izan zen zaldi handiago batekin ausartu zena ere.



Azaroaren 20-21 eko asteburuan elurra izan genuen bisitari Eskoriatzan. Aurtengoan azkar xamar agertu da, beste urteetan baino lehenago. Esaerak dion bezala Azaroa hotz, Negua motz. Espero dezagun esaerak esandakoa betzea.

OLIO BILKETAREN KANPAINA MARTXAN

Herritar guztiei zuzenduriko kanpaina honi azaroan ekin zaio eta dagoeneko 200 litro inguru biltzea lortu da. Kanpaina alde batetik gaztetxoei zuzenduta egongo da, Almen eta Luis Ezeizan erreziklapenari buruz egiten ari diren emanaldien bitartez. Bestalde, etxez etxe egun eta ordu konkretuetan burutzen ari den sukaldeetan erabiltzen den olioaren biltzea herritar guztioi zuzendua dago. Materiale askoren erreziklaian asko aurreratu

da jadanik, eta erreziklaiaren kultura bat sortzen ari garela esan genezake. Sukaldeetan erabiltzen den olioaren biltzea ere, ingurugiroa errespetatzeko modu zuzena delako erabaki zuten Eskoriatzako Ingurugiro Batzordeak olio biltzea kanpainari ekitea.

Azkenik, esan, bai ingurugiroari edo beste edozein gairi buruz iradokizunak jasotzeko buzoi bat jarriko dela laister udal-txean.



Esko Sport

*Kirola eta sport
moda Leintz
bailaran.*

Tel. 943 715296

egizabal
o i n e t a k o a k

ARRASATE - Ferrerías, 9 - Tf. 943 79 66 01
BERGARA - Bidekurutzeta, 13 - Tf. 943 761228

Artisau feria Leintz Gatzagan

Azaroaren 14an, jada tradizio bilakatu den VII. Artisau Langintzen ferixa egin zen Leintz Gatzagan. Gatzagako udalak eta bertako artisauak antolatzen dute San Milixanetako ferixa hau. Aurten, guztira, hamabost postu ekarri ziren, eta artisauak lanean duten trebetasuna jende aurrean erakutsi zuten. JAKION kontserba lantegia bisitatzeko aukera ere izan zuten bertaratu zirenek eta baita bertan era tradizionalen prestatzen dituzten produktuak erosteko aukera aprobetxatu ere. Giro benetan aldrebesa egin zuen egun honetan, baina artaizautza gogoko duen jende ugari hurbildu zen. Gainera, taloak eginez eta txistulariak soinua aterez giroa berotzeko ahaleginak egin zituzten.



Mota ezberdinetako artisautza postuak ikusi ahal izan ziren Gatzagan. Irudietan eskus egindako otarren postu bat.

Rodolfo Cardenal hizlari Unibertsitateko inagurazioan

Azaroak 25, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean Arizmendi Topaketan XIII. ekitaldia ospatu zen. Ekitaldi honetara Mondragon proiektu kooperatiboaren aitzindari izandako pertsona asko bildu ziren, baita Fakultateko irakasle gehienak ere.

Agurra eta aurkezpena GIZABIDEA fundazioaren lehen-dakaria den Jesus Maria Herrasti egin zuen. Ondoren, Fakultateko dekanoa den Jesus Garmendia eta Ikerlaneko Carlos Redondok jardun zuten fakultatearen inagurazioa eta Ikerlanen 25. urteurrenaz.

Hauen ostean, hitza Rodolfo Cardenalek izan zuen. Rodolfo

Cardenal, Aita Ellacuria hil zuteneko sarraskitik bizirik ateratakoa. Ertamerikan, San Salvadorreko Unibertsitatean Gizarte Proiektiorako errektorordea dugu, eta giza eskubideen alde egin izan duen eta egiten duen lanagatik aski ezaguna da.

"Pertsona eta Gizartea desberdintasunezko munduan" izan zen

Irudian, HUHEZI Fakultateko inagurazioan hizlari izan ziren Jesus Garmendia, Jesus M^a Herrasti, Rodolfo Cardenal eta Carlos Redondo

bere hitzaldiaren izenburua. Luze eta zabal jardun zuen. Lehenik, pertsona ikuspegi filoso-fiko batetik aztertuz, eta ondoren munduko pertsona guztien duin-tasun eta eskubideak aldarrikatuz.

Azkenik, Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako egoitza berriaren inagurazioa zela eta klaustroan lunch bat egin zen.






Industrias Olabarri, S.A.
Arana, 20 • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 715267 - 943 714272 • Faxe: 943 714061



MURU

Autos Muru S.L.
Araba Etorbidea, 3
20500 ARRASATE
Tfnoa. 943 792716



HONDA
motorrak

AUTO KONPONKETAK
Motorren konponketa eta salmenta

ZERBITZU OFIZIALA:









Euskal Presoen aldeko baraualdi eta ekintzak

Eskoriatza eta bailaran

Gaurkotasunik galtzen ez duen gaia dugu Euskal Presoena eta beraien eskubideen alde Euskal Herri osoan burutzen ari diren hainbat ekintza eta deialdiren. Aurrera doa Espainia eta Frantziako hainbat espetxetan presoak burutzen ari diren gose greba, eta ildo beretik, Euskal herrian sortu diren ekimen, baraualdi eta protestaldiena. Joan zen ostiralean adibidez, Euskal Herriko beste hainbat herritan gertatu lez Eskoriatzan ere kontzentrazioa burutu zen herriko plazan. Berriki sortua den Batera plataformak berriz, komunikabide guztien arreta piztuko duen deialdia luzatu du Gabon hauetarako gure bailaran,

Arrasaten mila pertsona bildu nahi dira barau egiteko

Arrasaten konkretuki, Mila pertsona bildu nahi dira ireki berria den Uarkapeko frontoian, Euskal Presoekin elkartasunean Abenduaren 27tik Urtarrilaren 3ra bitartean egingo den baraualdian parte hartzeko. Egun horietan zehar, begi guztiak Arrasatera begira jarriko dira, eta guztien bilgune Uarkape izango den arren, aldamenean dagoen Amaia Antzokian, Lizarra-Garazi akordioa, Udalbiltza elkarte edo eta Euskal Presoen egoera bezalako gaiei buruz hitz egiteko bilduko da hainbat jende. Ildo beretik, eta azken aste hauetan baraualdien dinamikak Euskal Herri osoan izan duen erantzuna, eta gure

Eskoriatzan 5 eta 9 bitartean baraualdia deitua dago

herrian gai honek merezi duen garrantzia islatu asmoz, Urtarrilaren 5 eta 9 bitartean, gure baraualdi propioa egin ahal izango dugu Eskoriatzan. Antolatzaileek argitu digutenez, "garrantzizkoena barau honetan parte hartzea da, norberak bere aportazioa eginez. Ideia baraualdia lau egunetakoa dela izan arren, edozeinek har lezake parte bertan, egon beharra dagoen denbora zehaztu gabe. Ekintza zabal bat lortzea da helburua". Baraualdia Kultur Etxean edo Udaletxean egitea da asmoa, eta irauten duen bitartean, enkarteladak, bideo emanaldiak eta hitzaldiak izango dira.

Leitzako Parke Eolikoa bisitatzen E.H.eko kideak

Eskoriatzako E.H.ek bisita bat egin berri du Leitzako Parke Eolikoa ikustera. Bisita honen helburua, alde batetik Leitzan jada eraikita dagoen Parke Eolikoa gertutik ezagutzea izan zen, hala nola; Parke honek Leitzako inguruetan zer nolako eragina izan duen, parkea nola eraikia izan den eta bere funtzionamendua nola gauzatzen ari den, eta baita ere parkearen funtzionamendu honekin ingurune naturala zenbateraino errespetatzen den. Bestalde, bi udalerriek komunean izan ditzaketen kontuetan euren ikuspuntuen berri emateko ere aprobetxatu dute bisita hau. Leitzako udalak gonbidatuta

joan ziren Eskoriatzako E.H.eko kide batzuk (Iñaki Uribeberria, David Arrieta, Dorleta Kortazar eta Josu Azkarate Euskal Herritarrokeko zinegotziak) abenduaren 6an Nafarroako herri

honetara. Bisitaren balorazio positiboa egin dute bi udalerrietako partaideek eta aurrerantzean ere jarraituko omen dute harremanetan.



Udal korporazioko kideak Leitzako Parke Eolikoan

EROSLE

HARATEGIA, FRUTATEGIA eta BESTELAKOAK

Aranburuzabala, 3
Tfnoa: 943 714546

Pagalday



PAGALDAI
HARATEGIA

Gaztañadui, 15

Ondo pasa San Pedrotan!.

Presoen aldeko Rock Kontzertua urtea amaitzeko

Gazte Asanbladak bultzatutako beste ekintza batzuen artean, Berri Txarrak Iskanbila eta Anger taldeek Frontoian joko dute Abenduaren 26an.

Gabonak beti izaten dira ekintzaz betetako egunak gure herrian, eta aurten ere hala izango dira, udaletxetik martxan jarritako aktibitateez aparte, Eskoriatzako Gazte Asanbladan ere gogotsu baitabilta urte amaiera honetan jaiak girotzeko asmoz. Lehenengo saiakera San Pedro Jaietan egin bazen ere, orduan ez zen posible izan kontzertua antolatzerik, baina ordutik hona egindako lan politikak saria eman diote azkenean E.G.A.S.-i, eta datorren Abenduaren 26an eta Euskal Presoak Euskal Herrira lelopean kontzertu interesgarria izango da frontoian, Iskanbila, Anger eta Berri Txarrak taldeen eskutik. Arrasateko

bi talde izango dira tabladuan; lehenengoak ezagunak ditugu aspalditik, Iskanbila behin baina gehiagotan izana baita Eskoriatzan, eta beraien lagun, Anger, talde gaztea izango dute. Eta gaua borobiltzeko, Durangon diska berria aurkeztetik bueltan, Berri Txarrak izango da beren ikuskizuna eskaintzen. Azken hilabete honetan arrakasta dexentea lortu du talde honek gazte jendearen artean, eta irratian ere asko entzun izan ditugu. Ez galtzeko moduko kontzertua beraz, sarreraren prezioa 400 pta inguruan jarriko dela kontutan edukita. Gogoratu ; Abenduak 26, domeka, gaueko hamar t'erdietan frontoian. Hala ere, hau ez da antolatuko den ekintza bakarra izango, Abenduaren 24ean, nola ez, Olentzerorekin zita jarria dago eta. Azken urteotan indarra galtzen ari den ohiturari bultzada eman asmoz, EGASek deialdia luzatu nahi die

gazte guztiei, eta eztarriak berotzen joateko, arratsaldeko 5etan jarri da hitzordua, Mojatako aretoan. Helburua egun horretan giro polit bat lortzea denez, baserritar jantzita eta kriseiluekin joatea eskatu dute Gazte Asanbladatik. Hortaz aparte ere, ipuin kontalariak eta antzerkiak ere izango dira gaztetxoentzat. Eta gaztetxoak aipatu ditugunez, ezin alde batera utzi hilaren 30ean den beste zita, Udazkenean zehar nagusiak jolasean ikusi eta inbiriak gelditutako hurrek, beren Haur Olinpiada izango dute ta. ALMEN ikastolak proposatutako ideiarri jarraituz, eta Gazte Asanbladaren laguntzarekin, bederatzi eta hamahiru urte bitarteko haurrentzat jokoak izango dira herriko plazan ; bertan bildutakoek, azeri buztana, zapatila jaurtiketa edo eta arto jokuan egin ahal izango dute, besteak beste.

Gabonetako ekintzen egitaraua

Abenduak 24, ostirala. Gabon Eguna

11.30etan: 4 eta 10 urte bitarteko umeendako ipuin kontaketa Kultur Etxean.

12.30etan : "Trikitixa Eskola"ko ikasleekin kalejira

Plazan buzoi bat jarriko da, Olentzerontzako haurren eskutitzak jasotzeko.

.17.00: Zaharren Egoitzan elkartu eta herriko kaleetan abestu beharreko kantuen entseia egingo da.

17..30: Olentzero kalez-kale ibiliko da herritarron kantuen laguntzarekin.

(Ibilaldia: Zaharren Egoitza- San Pedro- Santa Ana- Olazar- Hidalga- Dorleta- Goiko kale- Plaza)

Abenduak 26, igandea

22.30: Rock jaialdia, pilotalekuan.

Abenduak 27, astelehena

17.30: Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean "Txalozirkus", antzerkia, zirkoa, musika, dantzak eta, nola ez, barreak nahasten dituen ikuskizun zoragarria.

Abenduak 28, asteartea

17.00: 3 eta 5 urte bitarteko umeendako ipuin kontaketa

18.00: 6 eta 8 urte bitarteko umeendako ipuin kontaketa

Ipuin kontalaria: Arrate Leunda

Non: Kultur Etxean



Aurtengoan, Olentzero, arratsaldez etorriko zaigu

Abenduaren 27an eta 28an, Eskoriatzako kiroldegian "Selekzioen Arteko Euskadiko Futbito Txapelketa" izango dugu.

EDORTA ZABALA

Besagain enpresako pilotaria

1. Noiz eta non hasi zinen pelotan jokatzan?

Txikitatik izan dut afizioa, lehenik Gaztanaduiko eliz atarian ibiltzen ginen, gero eskolan patio orduan ere bai. Ondoren Eskoriatzako frontoian ere aritu izan nintzen eta azkenik afizionatuetara igarotzean, beste lekuetan ere entrenatu izan dut.

2. Pelotari "beteranoa" izan arren paper ona egin duzu azken lau t'erdiko txapelketan, nola ikusi duzu zure burua?

Ondo, haseran ez nekien zer moduz ibiliko nintzen. Santiren kontra Logroñon bera zen faborito estelarrak jolasten ari baita, gero Telletxea ere lesio batetik zetorren. Baina bueno aurrera atera nituen partiduko.


Azkenik Etxanizen aurka nahiz emaitza juxtua izan, esan behar dut Etxaniz badakiela bere etsaira moldatzen, eta oso zaila da berari irabaztea.

3. Nor ikusten duzu aurten lau t'erdiko txapeldun?

Denon moduan, nik Eugi eta Nagore ikusten ditut finalean. Agian sorpresaren bat, ez dakit, Errandonea hor ibili daiteke, baina zail ikusten dut.

4. Ze iritzi daukazu azken urteotan egon den enpresen arteko gerrari buruz?

Guzti honetatik irabazten atera dena, pilotaria izan da. Kontratu altuak lortu dira eta diru kopuru handiagoak mugitu izan dira. Hala ere, Besagain enpresa ez da gehiegi sartu gerra horretan. Gure taldearen aurrekontuak barregarriak dira besteenean ondoan, horregatik, gu guzti honetatik kanpo geratu izan gara. Gure enpresa, esan daiteke ia familia bat bezala dela. Pelotari gazteak eta beteranoak aurkitzen gara bertan, baina ez daukagu frontoia gainezka betetzen dituen izarrik.



5. Zein da gogokoena duzun pelotaria?

Alustiza asko gustatu izan zait beti. Oso borrokalaria da eta nere ustetan dagoen aurrelaririk onenetakoa. Ez da, agian, behar bezainbat baloratua izan, ez delako errematatzailea. baina nire ustetan oso aurrelari ona da. Gainera, ezin dira denak errematatzaileak izan, bestela partidua segituan amaituko lirake.

6. Zure jokoa ere horrela definienezake ezta? Erregularra, borrokalaria, partidu asko irabazten dituen.

Bai, beno, irabazi izan ditut, baina batez ere borrokalaria izan naiz. Nahiz eta partidua ez irabazi ez dut partidua erraz entregatzen, beti borrokatu izan dut azken tantorarte. Hala ere garrantzi handia du zein jartzen dizuten bikote bezala.

7. Noiz arte jarraitzeko asmoa duzu?

Egun, 36 urte ditut eta egia da amaieratik gertuago nagoela haseratik baino, baina oraindik jarraituko dut, ahal dudanean behintzat.

8. Pilotariak kirolariak izanik, gorputza zaindu beharra duzue.

Zainketa berezirik egiten duzu zuk?

Ez, beno, ni baserrian bizi izan naizenez beti barazki asko jan izan ditut eta alimentazio garbi bat. Baina ezer berezirik ez, bizitza sanoa besterik ez.

9. Nola ikusten duzu pelotaren egoera orokorrean?

Badirudi telebistarekin bultzada berria izan duela, baina ez da egia. Pilotalekuak izar diren batzuk betetzen dituzte, baina egoera ez da gehiegi aldatu. Ez da erreala pilotak ustez izan duen bultzada hori.

10. Zelan ikusten duzu Eskoriatzako pelota afizioa, batez ere gazte jendea, egiten al da nahikoa lan?

Zaila da norbait ibiltzea gazteei erakusten, horretarako pelota asko maite duen jendea behar da. Normalean, pelotarien gurusoak izan dira ordu asko eman dituztenak hurrei erakusten. Baina denbora asko dirurik irabazi gabe. Horretarako afizioa eta gogo ikaragarria izan behar da.

Gainera gazteek nahiago dute beste gauza batzuk egitea. Kanpora joaten direla ikastera, edo eskuen arazoak, lagunak; juergak... Zaila da benetan gazteak honetara dedikatzea. Atera izan dira batzuk, baina goizetik gauera desagertu egiten dira.

Hala ere atera izan dira pelotariak Eskoriatzan. Hor dago bestela Iñurategiren adibidea.

11. Eskoriatzako alkate izango bazina, zer egingo zenuen herriaren alde?

Nire ikuspegitik, agian, frontoia bizi pixka bat gehiago emango nioke. Noizbehinka pelota partidu bat antolatu. Garestiak dira horrelako pelota partiduak ekartzea, baina izen handia ez duten pelotariak ekartzea ez da hain garestia eta komeniko litzateke noizbehinka halakorik antolatzea.



EDURNE
ESTETIKA ZENTRUA

Aranburuzabala, 42
Tfnoa.: 943 71 51 54

ARISTIDES

BAINU INSTALAKETAK, GASA ETA KALEFAZIOA
Otalora, 9 • Tfnoak: 943 791323 - 943 794267
ARRASATE-MONDRAGON

Udazken kulturalak harrera beroa aurten ere

Hiru astetan zehar herritarrok kulturaz janzteko itzaropenez ekitaldi ugari izan ditugu udazken kulturalaren barruan. Aurten ekitaldi gehiago prestatu dira; urterokoz gain, hitzaldi, erakusketa eta diapositiba emanaldi gehiago eskaini dira. Batzuk harrera beroagoa izan dute beste batzuk baino baina orohar erantzuna ona izan dela esan dute antolatzaile izan ditugun, Eskoriatzako Kultura Batzordea eta parte hartu duten herriko talde ezberdinek.

Asko izan dira arrakasta izan duten ekintzak, besteak beste:

Perretxikoak protagonista:

Perretxikoak, sasoi honetan hain ugariak izanik udazken kulturalan ere protagonismo handia izan dute eta jendeak ondo erantzun du perretxikoak gaitzat hartuta antolatu diren ekitaldi



Takolo, Pirritx eta Porrotx-en ikuskizunak arrakasta handia izan zuen. Haurrak pozik izan ziren, kantuan batzutan eta aho zabalik bestetan.

ezberdinetan. Hitzaldia, Aranzadi taldeko kide den Juan Inazio Iturriozek eman zuen. Mendira perretxiko bila joateko irteera ere antolatu zen azaroaren 13an, ez dakiguna da egin zuen eguraldi aldrebesarekin askorik aurkitu ote zuten. Hala ere, nonbaiten perretxikoak aurkitu ziren, perretxiko erakusketa azaroaren 14an izan baitzen. Igande goiza ere goibel jeiki zen arren, "Udazkeneko perretxiko erakusketa" txukun askoa prestatu

zen kontzejupean. Bertan, perretxiko zaletuek ekarritako pieza ikusgarrienak egon ziren ikusgai.

Haurrak Ezkurtxorekin Apotzan kontu kontari.

Astebukaera horretan bertan, bestalde, "Ezkurtxo Apotzan kontu kontari" ekitaldiaren barruan: ipuin kontaketa, diaporama emanaldia eta Apotzagako elizatean zehar



Apotzan Ezkurtxo izan genuen bisitari. Ipuiak entzun naiz beraietan parte hartzeko aukera izan zuten haurrek.

ibilalditxoa ere egin zen umeentzako. Ekitaldi hau Jose Arana Almen ikastolak antolatua izan zen eta Eskoriatzako gazteen laguntza izan zuten besteak beste. Egin zuen giro kaxkarra aintzat

hartuta, txalotzekoa izan zen haur eta gurasoen erantzun ona.

Herrikoen hitzaldietan jende ugari

Hitzaldi eta diapositiba emanaldien artean, gertuko jendeak eskaini dituenak izan dute erantzun onena izan dutenak.

Xabierrek, herriko parrokoak, "Bizitza eman urteei" lemapean eman zuen hitzaldia esaterako, jendez lepo egon omen zen. Hitzaldi hau batez ere pertsona

Eguraldi txarrak pilotalekuan babes hartzera behartu zituen Apotzagara hurbildutako haur nahiz gurasoak.

umoretsu.

A z k e n asteotan izan dugun eguraldi kaxkarrak, elurra ere aurtengoan aurreratuta etorri baitzaigu, batere lagundu ez duen arren, ekitaldi

eskoriatzarrekin zuten zitari. Laurogei lagun inguru izan ziren bertso afarian. Bertso saio benetan polita eskaini ziguten ete berandurarte luzatu zen arren, gustura egon ginen haien ateraldiak entzuten.

Baina udazken kulturalen ezerk aipamena merezi baldin badu, hori jada gure artean aski ezagunak ditugun "Takolo, Pirritx eta Porrotx" pailasoen ikuskizuna da. Arrakasta handia izan zuen euren azken ikuskizunak. Eskoriatzako frontoia jendez gainezka zegoela (mila eta berrehun lagun bertaratu baitziren) txalo artean egin zitzairen ongi etorria pailasoei. Ordu t'erdi luzatu zen ikuskizunean hamaika pailasokeria egin zituzten pailasok eta haurrak zein gurasoak ere aho zabalik, gustura, egon ziren pailasokeriei begira.

Bukatzeko esan, udazken kulturalaren balorazioa positiboa egin behar dela aurren ere.



Eskoriatzako pilotalekua jendez gainezka. Pailasoen ikuskizun koloretsu eta alaiak gozatu zuten milatik gora pertsonak

edadetuei zuzendua zegoen.

Baina, baita, Eskoriatzako beste bi gaztek, Bea eta Imanolek, "Vietnam"i buruz eskaini zuten diapositiba emanaldian ere jende ugari izan zen. Bi hizlari trebe hauen jardunak eta nola ez eskaini zituzten irudiek jende asko erakarri zuten.

Bertsoak eta pailasoak, bi ekitaldi

Ondo jan eta ondo edan ondorenaritu ziren bertsolariak. Gai ezberdinak jorratuz eta batez ere zirikatzaile, ohizko den moduan.

guztiak gauzatzea lortu da. Horrela, herria elurrak zuritu zuen astean ere, Oihane Enbeita, Angel M^a Peñagarikano eta Andoni Egaña bertsolariek ez zioten hutsik egin



BEA ETA IMANOL:

“Vietnandarra oso esker onekoa da, beti du irrifarre bat bertako zein kanpokoarentzat”

Udako oporrak aprobetxatuz, Beatriz eta Imanol Eskoitzarrak Ekialde urruneko Vietnam ezagutzera joan dira aurten. Hain urruneko herrialde honen berri nola izan zuten galdetzean, zera esan ziguten: aurretik beste bi Eskoriatzar bertan izan zirela eta hauen aholkuz joan omen ziren. Mikel Diaz De Gereñuk Vietnami buruz hitz egin zien, eta hauek bi aldiz pentsatu gabe bertara joatea erabaki zuten.

Bilboko Sondikatik irten eta Londresen geraldia bat egin ondoren Malasyara iritsi ziren. Kuala Lumpur-etik Hanoira joan ziren eta hemen hasi zen bi gazte hauen ibilaldia.

Vietnam iparraldean kokatuta dago Hanoi eta beraien ibilbidea hegoaldeko Ho Chi Minh hiriraino luzatu zuten. Ohizko ibilbidearen aurka, egin zuten bidaia, alegia, iparraldetik hegoaldera. Kanpotar gehienak hegoaldetik sartzen dira, beraz esan dezakegu, oso arrunta ez den bidaia egin zuela bikoteak.

Hanoi eta iparraldeko lurak

Esan bezala, iparraldeko hiri handiena den Hanoira iritsi ziren lehenik, eta bertan egun batzu eman zituzten. Esan digutenez iparraldea ez dago mendebaldeko ohiturez kutsatuta eta oraindik bere nortasun propioa mantentzen du. Hiri nahiko handia izan arren kale estuz beteriko hiria dugu hau. Horregatik bizikleta antzeko



ibilgailuetan mugitu ziren. Kaleetan zehar ibiltzea zaila omen eta honegatik bertako gidari bat lagun ibili ziren. Motor txiki bat ere alokatu, eta honi esker inguruak ezagutu ahal izan zituzten. Inguruan ezagutu lekuetatik gehien atsegin izan zutena, Ha Long-eko badia izan zen. Txinarekin mugan dagoen kostan kokatzen da gune hau, eta paisaia mistiko eta lainotsuak ezagutu zituzten. Nahiz eta turista asko hurbiltzen den inguru honetara, bere handitasunagatik badia honetan ez duzu leku turistiko batetan zaudenaren sentsaziorik. Arrantzale jendea bizi da hemen, jende alai esan digutenez. Itsasontziz ezagutu zituzten inguru horretan kokatzen diren harrizko forma antzeko irlak.

Esan behar da denbora faltagatik ezin izan zutela iparraldeko lur garaietara joan, eta bertako etniak ezin izan zituztela ezagutu.

Erdialdeko probintziak

Hanoi atzean utzi eta hegoalderuntz jo zuten. Hamabost ordu egin behar izan zituzten trenezz 700-800 kilometro inguru mugitzeko. Paisaia berde eta nekazaria ikusi zuten. Lehen esan bezala, denbora neurtuarekin joan ziren eta nekazal lurralde nahiz paisaia zoragarri hauek trenetik ikusi behar izan zituzten. Ondoren, Hué hirira iritsi ziren. Aintzinako Vietnamdaren hiriburua. Hiri hau, garai bateko inperioaren gune garrantzitsuena izan zen. Horren lekuko dira bertan dauden monumentu izugarriak. Bi egun igaro zituzten hiri ikusgarri honetan eta bertako monumentuak ederrak izan arren, beraiei geratu zaien oroitzen handienak jandako barazki eta fruituekin dira. Mota guztietako fruituak jan zituzten, batzuk ezagunak eta beste batzuk, lehenago inoiz ikusi gabekoak.

Hemendik kilometro gutxitara Da

Nang eta Hoi An herriak bisitatu zituzten. Hondartza luze eta ederrez osatzen da kostalde hau. Asko harritu ziren horrelako hondartza ederrak ia hutsik ikustean. Baina gero ohartu ziren Vietnamdarrak arratsalderate ez zirela bertara joaten. Ez dira beraz oso hondartza zale, beste ohitura batzuk dituzte. Adibidez goizetan Tai Chi izeneko kirola praktikatzan dute goizero, batez ere adineko jendeak. Da Nang herriari buruz esan behar, bertako hondartzan lurreratu zirela lehen amerikar marineak, eta inguru hauetan eraiki zutela amerikarrek beraien baserik handiena.

Hegoaldea mendebaldearen eraginpean

Bidaia amaitzeko autobus bat hartu eta hegoaldera joan ziren. Bidea nahiko arriskutsua iruditu zitzaientzen, batez ere, bertakoek gidatzen duten moduagatik. Errepidea kaskarra eta gidariak nolabait esateagatik, oso ausartak ziren. Nha Trang hirira iritsi ziren eta hemen Budaren irudi ugari ikusi zituzten. Budaren ohoretan eginiko irudi eta pagoda ederrak ezagutzeko parada izan zuten hemen. Bertako monje batzuk fruituak ere eman zizkieten, beraien borondate onaren seinale. Esan behar, Bea eta Imanol, harrituak etorri direla, batez ere Vietnamdarren alaitasunagatik eta jaso duten harrera onagatik.

“Hegoaldea turistikoagoa da, mendebaldearen eragin handia somatzen da”

Eskoriatzar hauen hitzetan "Eske oneko jendea da Vietnamdarra, beti dute irriparre zabal bat kanpoko nahiz bertako jendearentzat, jende benetan maitagarria da".



Nha Trang alde batera utzi eta Ho Chi Minh hirira jo zuten, oraingoan ere autobusez. Ho Chi Minh hiria garai batean Saigon bezala ezagutua izan zen. Baina gudaren ostean, zigor gisan izena aldatu zioten iparraldeko Vietnamdarrek. Alde handia aurkitu zuten iparraldeko herrietatik hiri honetara. Mendebaldeko eragin handia dauka hiri honek. Kale zabalagoak, autoak, jendearen janzkera, telefono mugikorrak... dena da mendebaldeko kulturaren ispilu. Hemen ere bi egun egin zituzten eta ondoren Mekong ibaiaren itsasoratzen den ingurura joan

ziren. Leku hau zoragarria dela aipatu digute. Lastima denbora amaitzen ari zitzaientzen eta inguru hauetan ezin izan zutela nahi adina ikusi. Mekong ibaiaren itsasoratzea ezaguna omen da bere paisaia lauagatik (arroza zelai izugarriak daude) eta batez ere bertan dagoen ur gaineko merkatuagatik.

Azkenik hamabost egunetan Vietnam osoa zeharkatu ondoren berriro ere Eskoriatzara bueltatu ziren Bea eta Imanol. Berriz ere lanerako indarberrituak, baina ziur hurrengo urterako hantzeko beste bidairan bat pentsatzen hasiak direla.

"GOIENA": Deba Goieneko Komunikabideak

Euskarazko komunikabideen arloan 80. eta 90. hamarkadak oso garrantzitsuak izan dira: Euskal Herri mailan telebista, irrati eta egunkari zein aldizkariak garatu dira, eta herriz herri ere beste hainbeste, ugariak dira euskara hutsezko aldizkari, irrati zein telebistak, eskualde batzuetan beste batzuetan baino gehiago.

2000. urtea gainean dugun honetan, esparru lokala lantzeko ahaleginak gero eta ugariagoak dira komunikabide guztien aldetik. eta orain arte herriz herri landuriko komunikabideek oinarri sendoa lortu duten arren, hemendik aurrera ere geure lekua izan dezagun pausoak eman beharrean gaudela uste dugu, ezin gara daukagunarekin

zain gelditu.

Hausnarketa hau eginda, Deba Goieneko Euskara Taldeok garrantzitsutzat jo dugu beste aurrera pauso bat ematea: **herri komunikabideok eskualdeko komunikabide bateratu bat eratzea.**

Baina, zer esan nahi du honek? Bada, hasteko, telebista bateratu bat edukiko dugula bailara guztian eta jarraian idatzizko komunikabideak ere batera lantzeko aukera emango digula.

Pauso honekin, 2000 urtearekin batera euskarak erdarari aurrea hartzeko aukera ezin hobea dauka komunikabideen eskualde mailako

esparruan, komunikabideak bere sentzurik zabaleenean ulertuta gainera, ez bait dugu ahaztu behar internet eta kable bidezko azpiegiturek denbora gutxian aukera zabala emango digutela orain pentsatu ere egiten ez dugun bideak zabaltzeko.

Lehen ere gure bailara honetan aintzindari izanak gara euskalgintzako hainbat alorretan, eta oraingo honetan ere euskarari beste bultzadatxo bat emateko une ederra daukagu.

Proiektu honetan ondoren aipaturiko herriotako euskara taldeok ari gara lanean:

AED / ARKO	Arrasate
AXTROKI	Eskoriatza
IDOLAX	Antzuola
JARDUN	Bergara
LAIXAN	Oñati
LORAMENDI / ARETXABALETAKO KOMUNIKABIDEAK	Aretxabaleta
GURASO ELKARTEA	Gatzaga
Aramaio	
Elgeta	

Atxorrotx Elkartearen I. elkartasun afaria

Abenduak 17an, ostirala, Eskoriatzako hirugarren mundurako atxorrotx elkarteak, lehenengo elkartasun afaria ospatu zuen. Afaria Apotzako soziedadean egin, eta bertan hirurogei bat pertsona bildu ziren.

Gu baino gutxiago dutenekin solidario sentitzea zen helburua. Horretarako afari xume bat prestatu zuten; patata tortilla, letxua, intxaurrak eta kafea izan ziren jatekoak. Afari honetako diru etekina, bi proiektu aurrera ateratzeko erabiliko da. Hauek dira bi proiektuak: Honduraseko Nueva Esperanza komunitatean 30

etxebizitza egitea eta Costa de Marfileko Saint-Camille herriko ospitalean oilategi bat egitea. Bertaratutakoez gain, jende ugari bere elkartasuna adierazi ahal izan zuen Zero Lerroko txartelak erosiz.

Afal aurretik bi proiektu hauen xehetasunak ikusi ahal izan zituzten prestatua zegoen bideo emanaldiaren bitartez. Afal ostea animatua izan zen eta sobremesa giro jatorraz gozatu zuten, trikitixa jotzera animatu zenik ere izan zen.

Hau izan da, Eskoriatzan antolaturiko lehen elkartasun afaria, izandako erantzuna ikusita, espero daiteke etorkizunean horrelakoak errepikatzea.



Elgeako parke eolikoa dela eta

Azkenaldi honetan denon ahotan izan da Elgean eraikitzen ari diren parke famatua. Denok dakigu, haize korrante eta bobinen bidez produzitzen den energia elektriko hau, bukaezina, berriztagarria eta ez-kutxakorra dela. Baina badirudi batzuk ez dituztela kontutan hartzen honek ingurugiroari ekar diezazkiokeen kalteak.

Ados nago energia eolikoaren behararekin eta energia nuklearraren murrizketarekin baina ez dut uste mota honetako parke bat nonahi jarri daitekeenik. Saldu nahi digutena, energia moderno, ez kutsakorra eta ekologikoa da baina, ez digute aipatu ere egiten honek dakartzan kalteak.

Parke eoliko bat eraikitzeko, ez dira aparatu txiki eta kamuflatuak

erabiltzen, bai ordea, 45 metroko altuera duten haize errota erraldoiak. Hauek bertara kamioez garraiatu behar dira eta hauek aldi berean, mendietako autopista ikaragarriak eskatzen dituzte, eta nola eraikiko ditugu bertara eskabadorak sartu ezean?

Ez naiz kexu, mendia guztiz eraldatua eta kijoterren erraldoiekin aurkituko naizelako soilik, hau baita jende askok uste duena, soilik inpaktu paisajistikoa izango dela. Baina zer gertatuko zaie bertan bizi diren animalia komunitateari?

Mota honetako parke batek zarata handia ateratzen du eta honek kaltetu egin ditzazke bertako hegazti eta beste animalia komunitateak.

Kalte ekologiko hauetaz aparte

bada beste bat ere, pertsonen sortzen dutena. Orain arte sarri kexatu izan gara mendietan dabiltzan todoterrenoengatik; ba, pentsa orain zenbat jende animatuko litzatekeen igandero mendietara jopaten, pauso bat oinez ibili gabe goraino kotxez igo ahal balitz.

Hau guztia horrela izanda utzi egin behar al diogu "Eólicas de Euskadi" enpresari eta Iberdrolari besterik gabe, horrela gure kontura aberasten? Zein pertsona motak utziko du, diruagatik gure ondorengoengon ongizatea horrela saltzen?


G. Garaia
Biologiako ikaslea.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Zein aldaketa izango ditu 2000. urteak zure egunoroko bizitzan?




KEPA EZEIZA
ikaslea

Nik ezertan, pertsonalki berdin zait ze zenbaki den bi mila, bi mila eta bost ... Berdin berdin zait zein zenbaki den. Beraz, niri ez zait axola. Baina agian inguruko makina eta horrelakoak bai, hauengan eragina izan dezake.



RAFA GARCIA
Langilea

Nik ez dut uste ezer pasako denik. Fama asko eman diote bi mila urteari baina nire ustetan ez da ezer gertatuko, ez makinetan ez ezertan, denak berdin jarraituko du. Ez dugu aldaketarik sumatuko.



XABIER ESNAL
Langilea

Ez nere bizitzan ez du eraginik izango, eta gainera ez al da 2001. urtean mende aldaketa? Uste dut hor eztabaida bat dagoela. Niri ez dit ezertan eragingo, agian lan egiten dudan entpresan bai, ordenadoreetan batez ere.



ELADINO FERREIRA
Langilea

Noski, sumatuko dugula. Ez dakit onerako hala txarrerako baina aldaketa egongo da. Handiena txanpon aldaketarekin izango dela uste dut. Adineko pertsonak ez dugu arazo handirik, ezen lehenago ere zentimoak erabiltzen genituen.



MANOLI MERINO
Langilea

Ez dit ezertan eragingo. Bueno, bai, kontu handia izango dut dirua ateratzeko garaian. Esan didatenez kutzazain automatikoetan arazoak egon daitezke. Baina, bestela ez dut ikusten arazo handirik egongo denik.



NAGORE BELOKI
Ikaslea

Ez dakit zer gertatuko den. Gabonetan ez naiz ikastolara joango beraz, ondo. Olentzero etorriko da gabonetan ...

SEAT

Udalaitz, S.L.



Musakola auzoa, z/g.
Tf. 943 791880 - 943 792125 - 943 792411
Fax 943 792125
20500 **ARRASATE-MONDRAGON**



Eskoriatzan dantzari taldeek izan duten tradizio oparoaren erakusgarri da honako argazki hau. 1952ko otsailean ateratakoa da bera. Eskoriatzako dantza talde hau urte batzuk lehenago sortua izan zen, hain zuzen ere, 1947an eta Joaquin izeneko Errenteriako gazte bat irakasle izan zutela. Argazkian dantza taldekoekin batera urte hartan kintoak izan ziren gazteak ageri dira, hala nola:

- Goian, ezkerretik eskuinera: Jose M^a Legorburu, Arantxa Zubizarreta, Joaquin Armendariz, M^a Luisa Zubizarreta, M^a Tere Armendariz, *, Ane Miren Abasolo, *.
- Erdian zutik: Pedro M^a Zubizarreta, Felis Uribetxebarria, Roberto Oyanguren, Luis Eceiza,
- Erdian eserita: Juanito Isasmendi eta Juan Akizu
- Behean: M^a Josefa Oyanguren, Nieves Ezkurra, Rosita Uribarren, Karmen Aranburuzabala eta neskatoa.

Argazkia: Rosita Uribarreni eskerrak lortu dugu.

ALZA
Sukaldeko tresneria
 Aingeru Ibiltokia, 3
 Tf. 943 714131/943714256

VILLAR
APAINDEGIA
 Tfnoa.: 715042

ALUMINIOA/P.V.C.α/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIK



Aluminios
KURTZEBARRI
 Aluminioak

Araba Ibilbidea, 17
 Tel: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06
 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
 E-mail: kurtzebarrilehioak@euskalnet.net

BEHARREZKO

TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 943-714407
 Udal Bulegoak 943-714532
 Udaltzaingoa 943-714407
 Euskaltegia 943-792168
 Kultur-Etxea 943-714688
 Gizarte-Laguntzailea 943-714688
 Kiroletxea 943-715328
 Liburutegia 943-714688
 Luis Eceiza 943-714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 943-714486
 Almen 943-714964
 Museo-Eskola 943-714688
Ze Barri? 943-715434
 Talde Antimilitarista 943-715028
 Irakasle Eskola 943-714157
 Osakidetza 943-714452
 Telesko 943-714917
 Taxia 943-714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 943-795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 943-76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 943-797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 943-792800
 Renfe (Zumarraga) 943-721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 902 101 210
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 112

AZOKA

**VolsWagen Combi guztiz
 ekipatua salgai**

Tfnoa 943 -71.49.15

JAIOTZAK

99-11-6 Ane Eraña Leceta

99-11-16 Kimetz Zabala

Gabilondo

99-11-20 Itziar Uribetxebarria

Iñurrategi

99-11-24 Ander Beitialarringoitia

Acha

EZKONTZAK

99-11-6 Mikel Barandiaran

Garcia eta Eva Palma Paunero

KONTZIENTZI ERAGOZPENA

*** Intsumisioa edo objezioaren gainean zalantza edo arazorik baduzu, pasa zaitez Gazte Bulegotik eta bertan emango dizugu paperak tramitatzeko behar duzun informazioa.**

BEKAK.

*** "Jose Migel Barandiaran Fundazioa"ren eskutik, arkeologia arloko ikerketa beka. Epea: abenduak 31.**

LANA

*** Zumarragako Udalak, arkitektoa, zergabilketa eta errentarako administraria, liburutegiko arduraduna eta udaltzaina behar dira. Epea: EAOean argitaratu zain dago.**

*** Asteazkenero jasotzen dugu asteburuan egunkari ezberdinetan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma bat. Interesik edukiz gero, pasa zaitez bulegotik.**

IKASTAROKAK

*** "Setem Hego Haizea"ren eskutik hainbat ikastaro:**

bidezko merkataritzaren eragileen prestaketari buruzko monografikoa, hegoko herrien errealitatea, garapen lankidetzarako estrategiak, e.a.. Epe ezberdinak.

*** ICTEK "psikoestimulazioa dementzietan" gaiaren inguruan ikastaroa antolatu du, abenduaren 13tik 17ra bitartean burutuko dena.**

*** Leinz Zeramika Eskolak, zeramika ikastaro bat antolatu du, hastapen eta sakontze mailatan. Ikastaroa astearte eta ostegunetan izango da 7etatik 9etara. Izen emateko Gazte Bulegoan.**

*** Perkusio Ikastaroa Iñaki Bruñaren eskutik, astelehenetan 6etatik aurrera, Gazteluondo ikastolan.**

EKINTZAK

*** Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia Tolosan, azaroaren 27tik abenduaren 5era bitartean.**

*** Durangoko liburu eta diska azoka, abenduaren 3tik 8ra bitartean.**


*** Antzerki topaketak Azpeitian, urriaren 30etik abenduaren 21era arte.**

Liburu gomendioa:

Ostiralak (Jon Arretxe)

Jon Arretxe idazleak bidai liburuak egitea du gustuko, baina bere lehen nobelak izandako harrera onaren ondorioz, bigarren zati bat ateratzea erabaki du. Ezaguna dugu, Ostegunak eleberririk izan zuen arrakasta. Ikasle parrandazaleen bizipen haiek harrera oso ona izan zuten jendearengan. Horregatik Ostiralak, aurrekoaren jarraipena litzateke. Lan munduan sartu nahi ez duten ikasle oien bizitza.

Irakurtzeko liburu arina, umorezko pasarteez betetakoa dugu Ostiralak. Nola bizi lan egin gabe formularen bila dabilzanen liburua. Beraz, Gabonetan zer oparitu ez badakizu, Durangoko Azokatik pasa eta bertan aurkituko duzu, hau ez bada, beste gustuko libururen bat.





VITO CDI



Galloper Santamo



Mitsubishi Montero Sport



Nissan Cabstar E

Aldibin *berri* ugari dituzu



SV40 TDI



Hyundai Sonata *berria*



Aldibi autoak, S.A.



MERCEDES
Izar autoak, S. L.

VOLVO

Auto Suecia



Almovil, S.L.



Musakola autoak, S.L.



Aldikar autoak, S.L.




Plastikozko ontziak



Latak



brickak



...zure esku dago

“Bueltaka - Bueltaka Birziklatuz”

Datozen egunetan honelako 127 edukiontzi jarriko ditugu Deba Garaian zehar. Zure laguntzarekin ingurugiroa zaintzeko bide horretan urrats handia emango dugu.

Eta horrela, lehengai eta energia gutxiago beharko dugu, kutsadura eta zaborrak ere gutxitu egingo dira, eta jakina, zaborteziak ere denbora luzegorako izango ditugu.

Gutxitu hondakinak, berriz erabili eta birzikla itzazu

Guztion mesedetan izango da

